

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRU-ALGUNTZEN INGURUKO KONTROL
MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urriaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA


Aurtengo maiatzean, gizarte-eragile eta sindikatu ugari mobilizatu ziren Eusko Jaurlaritzak diru-sarrerak bermatzeko sistemarako sarbidean aplikatu dituen aldaketak direla eta, honek, prestazioetarako sarbidea mugatuko zutela eta are eskubide gehiago murriztuko zituztela iritzita.

Aldaketa horien artean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren dekretu berriaren 40. artikulua, eskatzailearen ondasunei etekin bat aplikatzeari buruzkoak dira. Honen arabera, zenbait egoeratan, orain arte diru-laguntza ekonomikoen onuradunak ziren pertsonak, prestaziotik kanpo geratu daitezke, beren ondarean fikziozko %2 etekin bat aplikatu zaielako.

Hainbat eragilek salatu dutenez, gehienbat emakumezko pentsionistei kalte egin dien aldaketa da hau. Batzordeetan, Honek eragiten digun kezka helarazi genion delegatuari, izan ere, udaleko gizarte zerbitzuetako memoria ikusita, urtetik urtera diru-laguntzak behar dituzten pentsionista donostiarrak gero eta gehiago direla ikus dezakegu. Batez ere, oinarrizko gastuei aurre egiteko, diru laguntza hau behar dutenak, 65 urtetik gorako emakumezkoak dira:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia



Udalak diru laguntza hauetan inbertitutako diru kopuruari dagokionez, deigarria da 2023an aurreko urtearen aldean, 4.189.113,16 €-tik 3.530.902,69 €-ra jaitsi izana (hau da, gastuaren % 15,71ko murrizketa). Eskaerei dagokionez, 2023ko memoriak dioen moduan, beharra zutela adierazi zuten 3.193 familietatik 340 ezeztatu zirela.

Udal gobernuaren ordezkariak batzordean adierazi zuenaren arabera, legedi berriarekin diru sarrera muga aldatu da baina pentsio minimoa jasotzen dutenek, 1.064,86 eurorarte (12 ordainketetan) diru-sarrerak konplementatzeko aukera dute. Esan beharra dago, parametro hauek pentsionistek aldarrikatzen dituzten 1.080 eurora ere ez direla iristen, eta batzordean ez dela argitu, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendu berriak eragin negatiboa izan duen eta udal gizarte zerbitzuetara laguntza eske gerturatu diren pertsonengan konpentsaziorik egongo den.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari diru-sarrerak bermatzeko errentaren dekretu berriaren 40. artikulua jasotzen duen eskatzailearen ondasunei etekin fiktizio bat aplikatzearen ondorioz, diru-laguntza jasotzeko eskubidetik kanpo gelditu diren donostiarrak konpentsatzeko aukerak aztertu ditzala.

Donostian, 2024ko urriaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia